



4. Gaia. Ahotsaren Heziketa

# 4. Gaia

## Ahotsaren heziketa



Mendiguren, Terese; Agirreazkuenaga, Irati; Marauri, Iñigo. OCW INFORMAZIO LOKUZIOA 2021

Ahotsaren kalitatean eragina duten **faktoreak** honako hauek izan daitezke:

- **Fisikoak**
- **Psikologikoak**
- **Kanpoko faktoreak**
- **Teknikoak**

## 1. Faktore fisikoak

Ahotsaren kalitateari eragiten dion edozein egoera fisiko:

- Arnas gaixotasunak: katarroak, bronkitisa, asma, etab. Intentsitatean eragiten dute.
- Fonazioarekin lotutako gaixotasunak, hala nola afoniak, noduluak, laringitisa eta abar. Ahots-korden gaitasunean eragiten dute.
- Beste gaixotasun batzuk: neurologikoak (dardarak, adibidez), diafragmari eragin diezaioketen digestio-patologiak (operazioak)

## 2. Faktore psikologikoak:

Gure ahotsaren kalitateari eragiten dion edozein egoera mental:

- Beldur eszenikoa
- Antsietatea
- Depresioa

### 3. Kanpoko faktoreak:

Ingurumen edota jarrerari lotutako baldintzak:

- Kutsadura
- Edari hotzak, izotza, tabakoa, etab.
- Kea, intsektizidak, etab.

## 4. Faktore teknikoak:

Ahotsa heztea eta ahotsa ahalik eta ondoen aprobetxatzea gure esku dago, teknika egokia erabiltzen badugu:

- Erlaxazioa: Ahotsa sortzen duten organoak tentsioan ez edukitzeko, ahotsaren nekea saihesteko eta urduritasuna kontrolatzeko
- Arnasketa: Arnasketa egokiaren bidez airea ahalik eta ondoen aprobetxatzeko
- Fonación: Para lograr colocar la voz y localizar nuestro tono medio

- Fonazioa: Ahotsa kokatzeko eta gure batzbesteko tonu maila aurkitzeko
- Artikulazioa: Behar bezala ahoskatzeko eta arintasuna lortzeko

**Gomendatutako ariketak:** (pp 74-112): RODERO, EMMA. *Locución radiofónica*. Instituto oficial de radio y televisión. Madrid. 2003

## Salbuespenezko kasuak:

Batzuetan, ahotsarekin lotutako patologiek edo arazoek aditu baten diagnostikoa behar dute:

- Foniatrak: Fonazio egokia lortzen laguntzen dute eta arazoak tratatzen dituzte
- Logopedak: Fonemen artikulazio egokia lortzen laguntzen dute eta ahoskera zailtasunekin lotutako arazoak tratatzen dituzte